



2. ENERGIA FOSILAK ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Bideo honetan Gorka Egia Arregik energiari buruzko azalpenak ematen dizkigu.

Irakur ezazu testua; zerbait ez baduzu ulertzen irakasleari galde iezaiozu. Ondotik, bideoa ikusi eta entzun arau, aipatzen diren hitzak azpimarra itzazu.

Uraz gain, energia ere ezinbesteko elementua dugu bizirauteko. Duela 200 bat urte eguzkia, *ura / egurra*, haizea eta animalien indarra erabiltzeari utzi genion inoiz ezagututako energia iturririk *berde / merke* eta eraginkorrenak deskubritu zirelako: *sendagai / erregai* fosilak (ikatz, petrolio eta *gasa / masa*). Egiten dugun guztia *inarrosi / oinarritu* dugu erregai fosilen inguruan: *materialak / elikagaiak*, sendagaiak, arropagintza, argia, gailuak, dena.

Gaur egun ezin da ezer *ekoiztu / hausnartu* erregai fosilik gabe. Amets polita zirudiena amets gaizto *bihurtu / segurtatu* da ordea. Erregai fosilen ekoizpenak *gaina / mahaia* jo izanak energia krisia eragin du. Horrekin batera, energia krisiak beste hiru krisi *egin / eragin* ditu halaberharrez:

- Krisi ekonomikoa, baliabideak *amaitzeak / agortzeak* hazkunde ekonomikoaren amaiera ekarriko duelako.
- Krisi ekologikoa, *naturaren / gizakiaren* berezko oreka hankaz gora jarri dugulako.
- Eta krisi soziala, erregaiak dituzten herrialdeak menperatzeko *udak / gudak* antolatzen ari garelako.

Gero eta petrolio *gehiago / gutiago* kontsumitzen dugu, nahiz eta petrolio ekoizpenak gaina jo duen, nahiz eta kutsadura maila jaistera *lehertuta / behartuta* gauden, edo erregaien prezioa gorantz doan etengabe.

https://youtu.be/SdYgDNOS_3Y
(1'21'' arte)